5. En el ámbito de la Toponimia se han realizado los siguientes trabajos:

a) Se ha continuado con las correcciones y actualizaciones de la base de datos de la toponimia de la CAPV y el Nomenclátor Geográfico. Es una tarea continuada.

b) Se ha fomentado el uso correcto de los topónimos en el paisaje lingüístico, en la señalización viaria y en la cartografía:



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

EAEko Izendegi Geografikoari zabalkundea eman zaio: Eusko Jaurlaritzaren GIS korporatiboan integratuta dago eta dauden eguneratzeak bidaltzen dira aldiro.

Aldatutako izen ofizialei zabalkundea eman zaie: administrazio ezberdinetara bidali dira (foru aldundiak, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinak, Instituto Geográfico Nacional, etab.), hainbat kartografia-entresatara, Posta eta Telegrafoetara, Telefónica eta beste enpresa askotara eta hainbat norbanakoei, etab.

c) Toponimiaren zabalkundean eragile garrantzitsuak direnek erabiltzen dituzten toponimoen jarraipena egin da, bereziki Interneten oso erabiliak diren tresnak aztertuz; hainbat enpresaren web orriak aztertu eta zuzendu beharreko leku-izenez oharrak egin zaizkie.

Toponimia-arloan lankidetzeta eta koordinazioa sustatu dira gainerako erakunde publikoekin eta Euskaltzaindiarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialen aldaketak bultzatu dira behar zen kasuetan. Ondorioz, Arabako udalerrri baten eta bi administrazio batzarren izenak aldatzeko espedienteak hasi dira.

Ingurumena eta Lurralde Politika Sailak diruz laguntzen dituen udal-mapetako toponimia gainbegiratu da. 2016an zuzendu direnak 2015eko aginduaren bidez esleitutakoak izan dira; gainera, 2016ko aginduaren barruan esleitutako mapak martxan jartzeko udalekin harremanetan jarri gara 2017ko lana planifikatzeko.

d) EAEko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortzeko eta horren funtzionamendua arautzeko Dekretua onartzeko izapideekin jarraitu da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren datu-basea kudeatzeko eta kanpoko erabiltzaileek datu-baseko informazioa kontsultatzeko egin beharreko aplikazioak aurreratzeko enpresarekin lanean jardun da eta aplikazioarekin probak egin dira.

6. Itzulpen Memorian Banku Publikoa Produksioan jartzeko proba asko egin dira eta hainbat arazo aztertu eta gainditu dira. Banku hau IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak kudeatuko duenez, erakunde horrekin sinatzeko hitzarmena tramitatu da eta Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du.

7. Itzulpen automatikoa. ES→EU (gaztelania-euskara), EU→ES (euskara-gaztelania) eta EN→EU (ingelesa-euskara) itzulpen-norabideak hobetzen jarraitzeaz gain, EU→EN (euskera-ingelesa) itzulpen-norabidearen lanak amaitu dira, laster, www.itzultzailea.euskadi.net webguneari gehitzeko. Horrez gain, FR→EN (frantsesa-euskara) itzulpen-norabidearen lehenengo faseko lanak martxan jarri dira.

Se ha hecho la difusión del Nomenclátor Geográfico de la CAPV: está integrado en el GIS corporativo del Gobierno Vasco y se envían actualizaciones de datos periódicamente.

Se ha dado difusión a los nombres oficiales modificados: se han enviado a diferentes administraciones (diputaciones forales, EUSTAT, departamentos del Gobierno Vasco, Instituto Geográfico Nacional, etc.), empresas de cartografía, Correos y Telégrafos, Telefónica y otras empresas, así como a particulares.

c) Se ha hecho el seguimiento del uso de los topónimos por parte de los agentes más importantes en la difusión de la toponimia, analizando especialmente las herramientas de Internet; se han analizado las páginas web de muchas empresas y se han enviado notificaciones sobre los nombres de lugar que deben ser corregidos.

Se ha fomentado la colaboración y la coordinación en el ámbito de la toponimia con el resto de entidades públicas y con la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia.

Se han impulsado las modificaciones de los nombres oficiales de los municipios y núcleos de población en los casos en que ha sido necesario. Como consecuencia de ese trabajo se han iniciado los expedientes de cambio de nombre de un municipio y de dos juntas administrativas alavesas.

Se ha revisado la toponimia de los mapas municipales subvencionados por el Departamento de Medioambiente y Política Territorial. En 2016 se ha trabajado en los subvencionados por la orden de 2015 y se ha contado con los ayuntamientos que realizarán el mapa dentro de la orden de 2016, con el fin de planificar los trabajos de 2017.

d) Se han continuado los trámites para aprobar el decreto que regula la creación y el funcionamiento del Registro de Nombres Geográficos Oficiales de la CAPV.

Se ha trabajado con la empresa que prepara aplicaciones de mantenimiento de la base de datos de toponimia de la Viceconsejería de Política Lingüística y de consulta de dicha base a través de Internet por parte de los usuarios externos.

6. Banco Público de Memorias de Traducción: se han llevado a cabo numerosas pruebas y se han detectado y subsanado algunos problemas para su puesta en Producción. Como el Banco lo gestionará el Servicio Oficial de Traductores del IVAP, se ha tramitado el convenio con dicha entidad que ha sido aprobado por el Consejo de Gobierno.

7. Traducción automática. Además de seguir mejorando las direcciones de traducción ES→EU (castellano-euskera), EU→ES (euskera-castellano) y EN→EU (inglés-euskera), se han finalizado los trabajos de la nueva dirección EU→EN (euskera-inglés) que, en breve, se añadirá al sitio web www.itzultzailea.euskadi.net. También se han puesto en marcha los trabajos de la primera fase de la dirección de traducción FR→EN (francés-euskera).



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

12. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA

1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren baitan Ipar Euskal herriko eragileentzako dirulaguntza deialdia bideratu da. Deialdira 86 egitasmo aurkeztu dira, eta horietatik 71 diruz lagundu dira.

2. Euskarabidea-Nafarroako Gobernuarekin dagoen lankidetzarekin jarraitu da, hainbat alorretan (EAS, Inkesta..).

3. Nafarroako Euskararen Kultur Elkargoak bere ibilbideari amaiera eman dio, beraz, ez zaio diru-laguntzarik eman urteko jardura laguntzeko.

13. EUSKARAREN GARAPEN SOZIALEAN DIHARDUTEN ERAGILEEN LANA BULTZATZEA

1. EUSKALGINTZA deialdia. Gizarte bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak: aisialdia, harreman sareak, erdal munduaren hurbilketa, euskararen ondarea, jardunaldiak, omenaldi esanguratsuak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna, etorkinak, kalitatezko ekarpenak, eta abar.

1.1. 187 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 134 diruz lagundu dira.

2. HEDABIDEAK deialdia (2016-2018). Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua, toki-aldizkariak, aldizkako argitalpenak, irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideak.

2.1. 137 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 124 diruz lagundu dira.

3. Nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntza deialdia.

3.1. 8 eskabide aurkeztu dira eta horietatik 4 diruz lagundu dira.

14. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA

1. EITBekin lankidetzan Eusko Jaurlaritzaren euskararen komunikazio ardatza eta euskararen erabilera soziala indartzeko ekimenak bideratu dira. "Euskararen Txantxangorria" 2015ean kaleratu bazen ere, bere garapena 2016. urtean zehar egin da. Ekimen hau

12. FOMENTAR LA COORDINACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAPV

1. En el marco del convenio entre la Viceconsejería de Política Lingüística y la entidad Euskararen Erakunde Publikoa de Iparralde, se ha tramitado la convocatoria de ayudas dirigidas a agentes de Iparralde. Se han presentado un total de 86 proyectos, de los que han sido subvencionados 71.

2. Se ha proseguido colaborando con Euskarabidea-Gobierno de Navarra, en diferentes proyectos (EAS, Encuesta...)

3. La Fundación Euskararen Elkargoa de Navarra ha dado por finalizada su actividad, por tanto no se ha concedido la ayuda para apoyar su programa de actuación anual.

13. IMPULSAR LA LABOR DE LOS AGENTES QUE TRABAJAN EN EL DESARROLLO SOCIAL DEL EUSKERA

1. Convocatoria EUSKALGINTZA. Estas subvenciones están dirigidas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en los diferentes ámbitos de la vida social: ocio, acercamiento del mundo no vascohablante al euskera, patrimonio del euskera, jornadas, homenajes, transmisión familiar, fomento de la lectura, inmigrantes, aportaciones de calidad, etc.

1.1. Se presentaron 187 proyectos, de los cuales se han subvencionado 134.

2. Convocatoria HEDABIDEAK (2016-2018). Subvenciones dirigidas a la consolidación, penetración, desarrollo y normalización de los medios de comunicación en euskera: prensa diaria íntegramente en euskera, revistas locales, publicaciones periódicas, radios, televisiones y medios de comunicación a través de Internet.

2.1. Se han presentado 137 proyectos y se han subvencionado 124.

3. Convocatoria de subvenciones destinada a incrementar la presencia del euskera en las ediciones digitales de los diarios escritos en papel que utilizan principalmente el castellano y en las agencias de noticias que también difunden noticias en euskera a través de Internet.

3.1. Se han presentado 8 solicitudes y se subvencionaron 4.

14. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL DEL EUSKERA

1. En colaboración con EITB se ha desarrollado el eje comunicativo del euskera, así como acciones dirigidas a reforzar el uso social del euskera. "El Txantxangorri del Euskera" se creó a finales de 2015, pero su socialización se ha llevado a cabo a lo largo de 2016. Esta es una



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

HAKOBAAk, (hizkuntza politika gaietarako Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordea) bideratutako ekimena da, hau da: Eusko Jaurilaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak, Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizeko udalak eta EUDEL.

"Euskararen txantxangorria" irudi bateratua, berria, freskoa eta denona da. Txantxangorriaren irudi atsegina eta maitagarriaren bidez, herritarrei gonbidapen bat egin nahi zaie, euskara erabiltzeko gonbidapena. Herritar guztientzako gonbidapen da: euskaraz ondo dakitenentzat, euskaraz neurri batean edo bestean dakitenentzat, eta euskaraz ulertu bakarrik egiten dutenentzat. Horretarako sortu da "Euskararen Txantxangorria" ikusten den bakoitzean leku edo pertsona horrekin euskaraz egin daitekeela adierazteko.

Lantzamendu kanpainarako honako hauek diseinatu ziren: spotak, kuinak, bannerrak, prentsarako iragarkiak, sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram), micrositea. Horretaz aparte, biniloak, pegatinak, display-ak eta pinak ere diseinatu eta zabaldu ziren. Hedabideetan 4 olatu egin dira urtean zehar. "Euskararen Txantxangorriak" bere abestia ere badu.

Bi izan dira urtean zehar bideratu diren komunikazio kanpainak: Poziktibity eta Euskararen Txantxangorria. 2016. urtean zehar, Poziktibity kanpainak Euskararen txantxangorriari tokia utzi dio eta azken hau indartuz joan da.

2. "Euskararen Nazioarteko Eguna" ospatzeko abenduaren 3an egin zen ekitaldi instituzionala Guggenheim Museoa. "Zer egin dezaket nik euskararen alde" lemapean garatu zen ekitaldia eta alde zuretik aurkeztutako Adierazpen instituzionala ere. Norbanakoen eta gizarte eragileen 800 atxikimendu inguru bildu ziren adierazpenaren alde.

Adierazpen Instituzionala HAKOBAAko kide guztien sinatu zuten, hau da Eusko Jaurilaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek, Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizeko udalak, EUDELek eta UEMAK.

3. Euskararen Berripaperak ez du jarraipenik izan.

4. "Bidegileak" izeneko bildumaren sorta bat argitaratu da.

5. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari (EHBE) 2016. urtean diru-laguntza izenduna eman dio Eusko Jaurilaritzak elkartearen urteko lan-programak finantzatzeko (bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere etorkizuna bermatu).

6. EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteari eman zaion diru-laguntza izendunaren barruan, 2016 urtean, orain arte egindako lanari jarraipena eman zaio, eta funtsean, bildumak kudeatzen jarraitu da, aurreko urteetan adosturiko baldintzen arabera.

7. Euskalgintza diru-laguntza deialdiaren bidez diruz lagundu dira euskaraz ez dakiten euskal herritarrek eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten 9 egitasmo.

iniciativa de HAKOBA (Comisión de Coordinación de las Administraciones Públicas en materia lingüística) formada por el Gobierno vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz y EUDEL.

"El Txantxangorri del Euskera" es una imagen nueva, fresca, unificada, de todos y todas. Mediante esa imagen agradable, "El txantxangorri" quiere lanzar a la ciudadanía una invitación al uso del euskera, una invitación a todos y a todas, tanto a quienes lo hablan bien e como a quienes lo hablan en alguna medida o tan solo lo entienden. La presencia del "Txantxangorri del Euskera" nos indica que con esa persona o en ese lugar se puede hablar euskera.

Para la campaña de lanzamiento se diseñaron spots, cuñas, banners, anuncios para prensa, redes sociales (Facebook, Twitter, Instagram), microsite. Además se diseñaron igualmente, vinilos, pegatinas, display-s y pines. En los medios de comunicación se han llevado a cabo 4 oleadas a lo largo del año. También se compuso la canción del "Txantxangorri del Euskera".

Dos han sido las campañas que se han llevado a cabo a lo largo de 2016: Poziktibity y El Txantxangorri del Euskera. De forma progresiva, la primera de ellas ha ido dejando su lugar al Txantxangorri del Euskera, aumentando su presencia.

2. Para conmemorar el "Día Internacional del Euskera", el 3 de diciembre se organizó un acto institucional en el Museo Guggenheim. "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?" fue el lema bajo el que se desarrolló el acto, así como la Declaración Institucional presentada con anterioridad al mismo. Alrededor de 800 personas y agentes sociales han mostrado su adhesión a la Declaración Institucional.

La Declaración Institucional la firmaron todas las instituciones que forman HAKOBA: Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz, EUDEL y UEMA.

3. El boletín informativo Euskararen Berripapera no se ha editado.

4. Se ha publicado una carpeta de la colección "Bidegileak".

5. El Gobierno Vasco ha otorgado una subvención nominativa a Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (EHBE), para la financiación de los programas que ha desarrollado en 2016 (proteger, promocionar, investigar y garantizar el futuro del bertsolarismo).

6. Dentro de la subvención nominativa concedida a EIZIE (Asociación Vasca de Traductores, Correctores e Intérpretes), en 2016 se ha dado continuidad al trabajo realizado hasta ahora, y básicamente se han gestionado las colecciones Literatura Unibertsala y Urrezko Biblioteka.

7. Mediante la Orden de subvenciones Euskalgintza, se subvencionan proyectos o iniciativas destinados al acercamiento al euskera de personas vascas no vascohablantes y de la población inmigrante. Se han subvencionado 9 proyectos.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

Bestalde, Topaguneak duen diru-laguntza izendunaren bidez, Auzoko egitasmoa diruz laguntzen da: euskaratik urrun dauden pertsonak euskarara hurbiltzeko egitasmoa.

15. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA

1. Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzeta mantendu da euskara nazioartean zabaltzeko.

2. Hizkuntzen arteko nazioarteko harremanei dagokienez, honakoak burutu dira:

a) NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea) Europako sarearen bilera guztietan parte hartu da, bai Zuzendaritza Batzordean (Steering Committee), bai Batzar Orokorrean (General Assembly), bai Think Tank-en (hizkuntza-aniztasunaren gainean gogoeta egiteko taldea).

b) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekiko akordio markoan aurreikusitakoaren arabera, eremu urriko hizkuntzak dituzten gizarteetan eleaniztasuna sustatzeko programak gauzatzeko bideak aztertu dira.

c) Kolonbiako Gobernuarekin sinatutako protokoloa indarrean dago.

d) Txileko CONADIrekin sinaturiko protokoloa indarrean dago.

e) Cuscoko Udal Gobernuarekin sinaturiko protokoloaren ildotik, HPSko ordezkariak parte hartu du unibertsitatean antolatutako mintegian.

f) Beste zenbait herrialdeetako –bereziki Amerikako herrialdeetako– herri-aginteeekin bertako hizkuntzen biziberritze lanetan laguntzeko protokolo berriak adosteko bideak aztertu dira (Argentina, ParaguaiB).

g) Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipena egin da. Hiru urtez behin egiten du ebaluazioa Europako Kontseiluak. Espainiako Estatuari dagokionez, jadanik hiru ebaluazio-txosten egin ditu Europako Kontseiluak (2005, 2008, 2012an), eta laugarrena onartu du 2016ko urtarrilaren hasieran Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak izan zuen bileran. Urtarrilaren 28an, prentsaurreko baten bidez, Eusko Jaurlaritzak laugarren ebaluazio-txostenaren inguruan ateratako ondorioak azaldu ziren.

h) NPLDk antolatutako jarduera batzuetan parte hartu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Sarearen presidentziari dagozkion lanak egin ditu:

- Apirilaren 2an, Korsikan: “30 urte euskara biziberritzeko hizkuntza politikan”.

- Apirilaren 12an, Amsterdamen.

- Maiatzaren 4an, Estrasburgon (Europako Kontseilua).

Por otro lado, a través de la subvención nominativa de Topagunea, se subvenciona el proyecto Auzoko destinado a acercar al euskera a las personas que lo desconocen.

15. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL MULTILINGÜISMO

1. *Se ha continuado la relación con Etxepare Euskal Institutua para la difusión internacional del euskera.*

2. *En cuanto a las relaciones internacionales sobre lenguas, se han realizado las siguientes acciones:*

a) Se ha participado en todas las reuniones de la red europea NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Red para la Promoción de la Diversidad Lingüística), tanto de la Junta Directiva (Steering Committee), como de la Asamblea General (General Assembly) y del Think Tank (grupo de reflexión en torno a la diversidad lingüística).

b) Con arreglo a lo previsto en el acuerdo marco con la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, se han analizado las vías para llevar a cabo programas de fomento del multilingüismo en sociedades con lenguas minorizadas.

c) Sigue vigente el protocolo con el Gobierno de Colombia.

d) Sigue vigente el protocolo firmado con CONADI de Chile.

e) En el marco del protocolo firmado con el Gobierno Municipal de Cusco un representante de la VPL ha participado en el seminario organizado por la Universidad.

f) Se han analizado propuestas para acordar con los poderes públicos de otros países –especialmente países de América– nuevos protocolos de colaboración en el ámbito de la revitalización de las lenguas locales (Argentina, Paraguai...).

g) Se ha realizado el seguimiento de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias. El Consejo Europeo realiza una evaluación cada tres años. En cuanto al Estado Español, el Consejo Europeo y ha realizado tres evaluaciones (en 2005, 2008 y 2012), y ha aprobado la cuarta en la reunión que ha celebrado a principios de enero de 2016 el Consejo de Ministros del Consejo Europeo. El 28 de enero, mediante una rueda de prensa, el Gobierno Vasco hizo públicas sus conclusiones sobre el cuarto informe de evaluación.

h) La Viceconsejería de Política Lingüística ha tomado parte en otras actividades organizadas por la NPLD, y ha realizado los trabajos correspondientes a la presidencia de la Red:

- El 2 de abril, en Córcega: “30 años en una política lingüística para revitalizar el euskera”.

- El 12 de abril, en Amsterdam.

- El 4 de mayo, en Estrasburgo (Consejo Europeo).



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

- Maiatzaren 25/27an, Bilbon: "Eusko Jaurlaritzaren politikak euskara sustatzeko hedabideetan eta IKTetan".

- Irailaren 26/28an, Korsikan: "Euskadiko hizkuntza politikaren lege araubidea, egitura eta baliabideak"; eta "Helduen euskalduntzea Euskadiko Autonomia Erkidegoan: euskararen biziberritzeko giltzarri".

- Urriaren 4an, Galesen: "Hizkuntza plangintza eta politika Euskadiko Autonomia Erkidegoan".

- Urriaren 27an, Bruselan: "Eleaniztasunaren balioa Europako hazkunde ekonomiko eta enplegurako".

- Azaroaren 16/18an, Udinen (Friuli): "Euskararen balio ekonomikoa".

3. Kataluniako Generalitatearekin, Iles Balearseko Gobernuarekin eta Galiziako Xuntarekin sinatutako lankidetzak akordioan jarraipena egin da. Horrela, Valentziako Generalitateak protokoloan parte hartzeko egindako eskaera aztertu da, eta horrekin batera beste Gobernu batzuei ere luzatu zaie proposamena.

Horrez gain, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi ekitalditan parte hartu du hitzaldiak emanez:

- Maiatzaren 14an, Valentzian: "Desarrollo del MECR en las lenguas oficiales del Estado".

- Ekainaren 23an, Nebrijako Unibertsitatean (Madrid): "Del misterio de la pervivencia al reto de la vitalidad".

4. Garabide Elkarteak antolatuta "hizkuntzak biziberritzeko estrategiak" izeneko ikastaroan parte hartu duten kanpoko adituekin bilera izan da Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politikaren esparruan duen esperientzia azaltzeko.

- El 25/27 de mayo, en Bilbao: "Políticas del Gobierno Vasco para promocionar el euskera en los medios de comunicación y las TIC".

- El 26/28 de septiembre, en Córcega: "Normativa legal, estructura y recursos de la política lingüística de Euskadi", y "La euskaldunización y alfabetización de adultos: una de las claves del proceso de revitalización del euskera".

- El 4 de octubre, en Gales: "Planificación y política lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca".

- El 27 de octubre, en Bruselas: "El valor del plurilingüismo para el crecimiento económico y el empleo de Europa".

- El 16/18 de noviembre, en Udine (Friuli): "Valor económico del euskera".

3. En el marco de los protocolos de colaboración firmados con la Generalitat de Cataluña, el Gobierno de las Islas Baleares y la Xunta de Galicia, se ha realizado el seguimiento del mismo. Así, se ha estudiado la propuesta de la Generalitat Valenciana para tomar parte en el Protocolo, y también se ha enviado la propuesta a otros gobiernos.

Además, la Viceconsejería de Política Lingüística ha participado en sendos actos con dos conferencias:

- El 14 de mayo, en Valencia: "Desarrollo del MECR en las lenguas oficiales del Estado".

- El 23 de junio, en la Universidad de Nebrija (Madrid): "Del misterio de la pervivencia al reto de la vitalidad".

4. Se ha mantenido un encuentro con expertos participantes en el curso "estrategias para revitalizar las lenguas" organizado por la Asociación Garabide, con el fin de trasladar la experiencia del Gobierno Vasco en materia de política lingüística.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA	PROGRAMA
4715 HEZKUNTZA SISTEMAREN EUSKALDUNTZEA	4715 EUSKALDUNIZACIÓN DEL SISTEMA EDUCATIVO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA	06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE INNOVACIÓN EDUCATIVA

HELBURUA

1. IRALE PROGRAMA: IRAKASLEAK ALFABETATU EDO EUSKALDUNTZEA
2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA DIDAKTIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK
3. HGA PROGRAMA: HIZKUNTZAZKO GAITASUN AGIRIAK (EGA, HE1, HE2, HLEA) (matrikula-kopurua)
4. ESKOLA-EREMUAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA (NOLEGA)

OBJETIVO

1. PROGRAMA IRALE: CAPACIDAD IDIOMÁTICA DEL PROFESORADO
2. PROGRAMA EIMA: INCENTIVACIÓN A LA ELABORACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO EN EUSKERA
3. PROGRAMA HGA: CERTIFICADOS DE COMPETENCIA IDIOMÁTICA (EGA, PL1, PL2, HLEA) (n. matrículas)
4. PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO ESCOLAR (NOLEGA)

BETETZE MAILA

1. IRALE PROGRAMA: IRAKASLEAK ALFABETATU EDO EUSKALDUNTZEA

IRALE programa ondoko alorretan aritu da:

a) Irakastorduetatik kanpoko trebakuntza-ikastaroak (IRALE):

139 ikasketari 2016ko udan.

2.481 ikasketari 2016/17 ikasturtean (2017ko urtarrilera arte).

b) Irakastordu barruko trebakuntza-ikastaroak:

- 2016ko urtarriletik ekainera:

431 postu, ikastetxe publikoetako irakasleentzako. Hauetatik 30 HABErekin daukagun hitzarmenaren bidez.

67 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako.

- 2016ko irailetik abendura bitarteko ikastaroak:

275 postu, herri-ikastetxeetako irakasleentzako, hauetatik 18 HABErekin daukagun hitzarmenaren bidez.

50 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako.

c) Euskaltegiei matrikulen kostua ordaintzea:

Matrikula-kopurua: 2.073

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. PROGRAMA IRALE: CAPACIDAD IDIOMÁTICA DEL PROFESORADO

El Programa IRALE ha actuado en los siguientes ámbitos:

a) Cursos de capacitación fuera del horario lectivo (IRALE):

139 Cursillistas en verano de 2016.

2.481 Cursillistas durante el curso 2016/17 (hasta enero de 2017).

b) Cursos de capacitación dentro del horario lectivo:

- Cursos entre enero y junio de 2016:

431 plazas para profesores de centros públicos. De estas 30 a través del convenio con HABE.

67 plazas para profesores de centros privados.

- Cursos entre septiembre y diciembre de 2016:

275 plazas para profesores/profesoras de centros públicos, de estas 18 a través del convenio con HABE.

50 plazas para profesores de centros privados.

c) Pago de costes de matrícula a euskaltegis:

N. de matrículas: 2.073



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

d) Ikastetxe pribatuei irakasleen ordezkapen kostua ordaintzea:

- 2016ko urtarriletik ekainera, 41.
- 2016ko irailetik abendura, 49.

IRALE programan egindako aurreikuspenak gauzatu dira ikasleen matrikulazioari dagokionez. Ikastetxe pribatuen irakasleen ordezkapen kostuak ordaintzeko diruak exekuzio maila txikiagoa izan du irakasle gutxiago liberatu dituztelako. Hori dela eta zertxobait gutxitu dira 2017rako aurreikuspenak diru-partida honetan. Hala ere, irakasleen prestakuntza ardatz estrategikoa izanik, programa hau indartu beharra ikusten da. Berrikusi nahi da etengabeko formakuntza eskaintzeko.

2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA DIDAKTIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

EIMA programa ondoko alorretan aritu da:

Euskarazko ikasmaterialgintzarako laguntza-deialdiak. Aurten hiru (3) deialdi egin dira. Honako hauek, hain zuzen ere:

AGINDUA, 2016ko uztailaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Unibertsitate aurreko irakasmaitetako euskarazko ikasmaterial inprimatu edizioari zuzendutako diru-laguntzetara biltzekoa deia egiten duena (EIMA 1).

AGINDUA, 2016ko uztailaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara deia egiten duena (EIMA 2.0).

AGINDUA, 2016ko uztailaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta egokitzeko laguntzetara egiten duena (EIMA 4).

2016. urtean diru-laguntzak jaso dituzten unitate-kopuruak honako hauek izan dira:

- EIMA 1: 168 ikasmaterial inprimatu lagundu dira diruz.
- EIMA 2.0: 8 ikasmaterial digital lagundu dira diruz.
- EIMA 4: 19 ikasmaterial lagundu dira diruz.

Ikasmaterialen egokitasun-azterketa: 325 material

- EIMA 1 (inprimatutakoak): 316
- EIMA 2.0 (digitalak): 9

Deialdi hauetarako zegoen aurrekontua agortu egin da eta komenigarria ikusten da deialdi guztietan aurrekontua igotzea. Izan ere, EIMA 1 deialdian esleitutako kopuruak

d) Pago de costes por sustitución de profesores y profesoras en centros privados:

- de enero a junio de 2016: 41.
- de septiembre a diciembre de 2016: 49

Las previsiones de matriculación se han cumplido en el programa IRALE. El dinero destinado al pago de las sustituciones de profesores y profesoras de centros privados ha tenido un grado de ejecución menor puesto que se ha reducido el n. de liberaciones. Por ello se ha aplicado una reducción en la previsión realizada para el 2017 en esta partida. No obstante, siendo la formación del profesorado un eje estratégico, se ve la necesidad de reforzar este programa. Se plantea revisarlo para ofrecer una formación continua.

2. PROGRAMA EIMA: INCENTIVACIÓN A LA ELABORACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO EN EUSKERA

El programa EIMA ha actuado en los siguientes ámbitos:

Subvención para la producción de material didáctico en euskera. En el ejercicio objeto de evaluación se han publicado tres (3) convocatorias de subvención. A saber:

ORDEN, de 8 de julio de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan subvenciones dirigidas a la edición de materiales didácticos de niveles no universitarios impresos en euskera (EIMA 1).

ORDEN, de 28 de julio de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan ayudas para la producción de materiales didácticos digitales en euskera de niveles no universitarios (EIMA 2.0).

ORDEN, de 28 de julio de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan subvenciones para la creación y adecuación de materiales didácticos en euskera para niveles no universitarios (EIMA 4).

El volumen de unidades objeto de subvención durante el año 2016 ha sido:

- EIMA 1: 168 materiales didácticos impresos subvencionados.
- EIMA 2.0: 8 proyectos de materiales digitales didácticos subvencionados.
- EIMA 4: 19 proyectos de materiales didácticos subvencionados.

Análisis de idoneidad de los materiales didácticos: 325 materiales

- EIMA 1 (impresos): 316
- EIMA 2.0 (digitales): 9

Se ha ejecutado todo el presupuesto para estas convocatorias y se considera necesario un incremento de las dotaciones por lo siguiente: En el caso de EIMA 1, las



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

deialdian zegoen aurrekontura egokitu behar izan dira, eta ondorioz, ikasmaterialei zegokien diru-laguntza % 54 jaitxi behar izan da. EIMA 2.0-ren kasuan, berriz, deialdira aurkeztutako 19 lanek betetzen zituzten diru-laguntza jasotzeko baldintzak, baina aurrekontuan zegoen diruarekin 8 baino ezin izan dira diruz lagundu. 19 proiektuak diruz laguntzeko 468.000 mila euro beharko ziren.

3. HGA PROGRAMA: HIZKUNTZAZKO GAITASUN AGIRIAK (EGA, HE1, HE2, HLEA) (matrikula-kopurua)

a) EGA azterketa egitera 11.948 pertsona aurkeztu dira, guztira, 2016an, urte horretako bi deialdietan (lehen deialdian 8.862 eta bigarrenean 3.086).

b) Irakasleen Hizkuntza Eskakizunak: HE1eko deialdi orokorrean 164 matrikulatu ziren; eta IRALERen bidez liberaturiko irakasleentzako deialdi itxian, berriz, 21 matrikula egin ziren. HE2ri dagokionez, berriz, honako datu hauek daude: deialdi orokorrerako 496 lagunek eman zuten izena eta IRALeko deialdi itxian 68 matrikula egin ziren. HLEAn, azkenik 61 lagun matrikulatu ziren deialdi orokorrean eta deialdi itxian

Azkenik, guztira 810 azterketari izan dira HE1, HE2 eta HLEA hizkuntza eskakizunetan.

Aurreikusitako helburuak bete dira. Nola nahi ere, diruzuzkidurak nabarmen gehitzeko beharra ikusten da lokalen alokairurako, azterketen analisietarako eta material sorkuntzarako.

4. ESKOLA-EREMUAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA (NOLEGA)

NOLEGA / ULIBARRI programa ondoko alorretan aritu da:

Eskola-eremuko euskalduntzearen eta normalkuntzaren sustapen berezia jarduera hauen bidez bultzatu da

a) Euskal Girotze Barnetegiak. Sailak bost euskal girotze barnetegi finantzatzen ditu. Barnetegiok 2015-2016 ikasturtean zehar, 4 eguneko egonaldiak eskaini dizkie hainbat ikasle-gela osorik, euskara ikastearen indargarri gisa:

Ikasle-kopurua:

- ALKIZA: 683
- LEMOIZ: 633
- BARRIA: 651
- ELGOIBAR: 667
- SEGURA: 606
- GUZTIRA: 3.240

Egindako aurreikuspenak gainditu egin dira. Ezin izan dira erantzun ikastetxeek egindako eskaera guztiak.

ayudas concedidas se han tenido que ajustar al presupuesto y, por consiguiente, los proyectos presentados han recibido un 54 % menos de lo que les correspondía. En el caso de EIMA 2.0, sólo se han subvencionado 8 proyectos de los 19 que cumplían los requisitos para recibir la subvención. Para poder subvencionar a esos 19 se necesitaría un presupuesto de 468.000 euros.

3. PROGRAMA HGA: CERTIFICADOS DE COMPETENCIA IDIOMÁTICA (EGA, PL1, PL2, HLEA) (n. matrículas)

a) En 2016 se presentaron un total de 11.948 personas al examen de EGA en sus dos convocatorias (8.862 en la primera convocatoria y 3.086 en la segunda).

b) Perfiles Lingüísticos del profesorado. En la convocatoria general para el Perfil Lingüístico 1 se matricularon 164 personas; en la convocatoria restringida para el profesorado liberado a través de IRALE se realizaron 21 matrículas. En cuanto al PL2, las cifras son las siguientes: matriculados en la convocatoria general 496; en la convocatoria restringida de IRALE se realizaron 68 matrículas. Por lo que respecta al HLEA, se matricularon 61 personas en la convocatoria general y en la restringida.

Finalmente, se han presentado un total de 810 examinandos a PL1, PL2 y HLEA.

Se han cumplido los objetivos previstos. No obstante se considera necesario un incremento importante de las dotaciones para alquiler de locales, análisis de pruebas y creación de materiales.

4. PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO ESCOLAR (NOLEGA)

Programa NOLEGA / ULIBARRI ha actuado en los siguientes ámbitos:

La promoción específica de la euskaldunización y normalización del uso del euskera en el ámbito escolar se ha impulsado a través de las siguientes actividades:

a) Centros de Afianzamiento Idiomático. Los cinco Centros de Afianzamiento Idiomático cuyo sostenimiento viene financiando el Departamento han ofrecido durante 2015-2016 a aulas enteras de alumnos y alumnas estancias de 4 días como refuerzo a su proceso de aprendizaje del euskera:

N. alumnos/alumnas:

- ALKIZA: 683
- LEMOIZ: 633
- BARRIA: 651
- ELGOIBAR: 667
- SEGURA: 606
- TOTAL: 3.240

Se han superado las previsiones realizadas. No han podido atenderse todas las solicitudes recibidas de los centros.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

b) Euskara eskola-jardueretan bultzatzeari dagokionez, 2016ean diru-laguntza deialdi bakarra egin da, 2016-17 ikasturteari dagokiona, ikastetxeek hainbat alorretan egiten zituzten jarduerak arautzeko. Bertan honako ekintza hauek sustatzeari ekin diote: antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza, eskola-irratigintza, ikastetxeen arteko trukeak (IKABIL), euskal girotze-egonaldiak (EGE) eta ikasgelaz kanpoko ekintzak (IKE).

Diru-laguntza jaso duten ikastetxeen kopurua: 479

- Publikoak: 315

- Pribatuak: 164

Deialdi honetarako zegoen aurrekontua agortu egin da eta egokia ikusten da diru-zuzkidurak zertxobait gehitzea ikastetxeen jarduera gehiago lagundu ahal izateko.

Urruzunotarrak gehituz literatur lehiaketa ere antolatu da. Lehiaketara 151 lan aurkeztu dira eta horien artean 20 izan dira saridunak.

c) Hitzarmenen bidez bi programa bideratzen dira: Idazleak ikastetxeetara eta Ikas2deak programa. Programa hauen helburuak ikasleen literatura-zaletasuna sustatzea eta euskal giza-ereduak eskolara hurbiltzea dira.

Hona jarduera horietan aritu diren ikasleen kopurua

Ikasle-kopurua:

• Idazleak ikastetxeetan (EIE): 10.166

• Ikas2deak: 3.979

d) ULIBARRI Hizkuntza-normalkuntzako proiektuak:

Hizkuntza-normalkuntzako programetan 394 ikastetxek parte hartu dute:

- Publikoak: 228

- Itunpekoak: 166

2016-2017 ikasturterako diru-zuzkidura % 10 igo da aurrekontuetan, baina igoera hori ezin izan da gauzatu eta deialdia iazko kopuru berberarekin egin zen. Hori, ordea, ez da nahikoa izan normalkuntza proiektuarekin programan diharduten ikastetxeen beharrei erantzuteko. Beraz, hurrengo deialdian %10eko igoera hori gauzatu ahal izatea proposatzen da.

e) Arrue ikerketa, eskola-giroko euskararen erabilera neurtzeko: 2015-16 ikasturterako aurreikusitako lanak bete dira. 2017an proiektua indartzeko aurreikuspena egin da erabilerekin zerikusia daukaten ekimenak proposatuz.

b) En el área de las actividades de fomento del euskera en el ámbito escolar, durante el 2016 se han llevado a cabo diversas actividades mediante una única convocatoria de subvención correspondiente al curso 2016-17, que ha regulado actividades tales como fomento del teatro, bertsolarismo, canto, narrativa, radio escolar en euskera, intercambios escolares (IKABIL), estancias de afianzamiento (EGE) y actividades extraacadémicas (IKE).

N. de centros que han obtenido subvención: 479

- Públicos: 315

- Privados: 164

Se ha ejecutado el presupuesto para esta convocatoria y se considera adecuado un cierto incremento de las dotaciones al objeto de poder ayudar un mayor número de actividades llevadas a cabo en los centros

Se ha organizado el concurso literario "Urruzunotarrak gehituz". Se han presentado 151 trabajos de los cuales 20 han sido premiados.

c) Dos programas se llevan a cabo por medio de convenios: Idazleak ikastetxeetara y Ikas2deak. Los objetivos de estos programas son impulsar la afición a la lectura, literatura y acercar modelos sociales a la escuela.

El grado de participación escolar en dichas actividades ha sido el siguiente:

N. alumnos/alumnas:

• Idazleak ikastetxeetara (EIE): 10.166

• Ikas2deak: 3.979

d) Proyectos de Normalización Lingüística ULIBARRI

En los programas de normalización lingüística han participado 394 centros:

- Públicos: 228

- Concertados: 166

La dotación presupuestaria para el curso 2016-2017 se ha incrementado en un 10%, pero esa subida no se ha podido ejecutar y la convocatoria salió por la misma cantidad que el curso anterior. Esa cantidad ha sido insuficiente para atender adecuadamente a los centros que participan en el programa con su proyecto de normalización. Se propone poder ejecutar en la próxima convocatoria el citado incremento de un 10%.

e) Proyecto Arrue: análisis del uso del euskera en el contexto escolar: se han realizado los trabajos previstos para el curso 2015-16. Se ha previsto reforzar el proyecto en 2017 con la propuesta de actividades relacionadas con el uso.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
 ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA	PROGRAMA
5412 IKERKETA	5412 INVESTIGACIÓN
ARDURADUNA	RESPONSABLE
06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA	06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
ZIENTZIA POLITIKARAKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE POLÍTICA CIENTÍFICA

HELBURUA

1. I+G+b-ko GIZA BALIABIDEAK SUSTATZEA
2. IKERKETA SUSTATZEA
3. IKERKETA-AZPIEGITURAK HANDITZEA
4. EUSKAL ZIENTZIA-SISTEMAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA ERAKUNDE HORIEKIN HITZARMENAK SINATZEA

OBJETIVO

1. POTENCIACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EN I+D+i
2. PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA
3. AMPLIACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS DE INVESTIGACIÓN
4. SUBVENCIONES Y CONVENIOS DE COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES DEL SISTEMA DE CIENCIA VASCO

BETETZE MAILA

1. I+G+b-ko GIZA BALIABIDEAK SUSTATZEA

2016ko ekitaldian zehar zenbait programa bultzatu dira ikerketa-jarduerako giza-baliabideen prestakuntzaren kopurua eta kalitatea sustatzeko, ondorengo jardueretan konkretatu direnak:

a) Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko laguntzak:

- Doktoretza aurreko laguntzak:

Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren laguntzek, doktoreak ez diren ikertzaileek doktorego-tesia egitera bideratutako ikerketa finantzatzea dute helburu. Deialdiaren bidez, laguntza berriak emango dira, eta 2015-2016 ikasturterako emandakoak berriztatuko.

2016-2017ko deialdia. 2016ko uztailak 19ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena (EHAA 2016/07/28).

- Eskaera berrien kopurua: 374
- Beka berriak: 100
- Berriz ematen direnak: 312
- Bekak guztira: 412

Dauden 100 beka berrietatik 99 A modalitatekoak dira

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. POTENCIACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EN I+D+i

A lo largo del ejercicio 2016 se han impulsado varios programas para la potenciación del número y de la calidad y formación de los recursos humanos dedicados a la investigación, que se han concretado en las siguientes actuaciones:

a) Ayudas a la formación de personal Investigador no doctor:

- Ayudas predoctorales

Las ayudas del Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador no Doctor están destinadas a la financiación de la investigación dirigida a la realización de una tesis doctoral por parte del personal investigador no doctor. La convocatoria incluye tanto la concesión de nuevas ayudas como la renovación de las concedidas para el curso 2015-2016.

Convocatoria 2016-2017. Orden de 19 de julio de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura (BOPV de 28 de julio de 2016).

- N. de solicitudes nuevas: 374
- Nuevas concesiones: 100
- Renovaciones: 312
- Total Becas: 412

De las 100 personas beneficiarias nuevas, 99 son



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

(EAEn), eta 1 I-koak (atzerrian).

Dauden 312 berriztapenetatik 298 A (EAEn), modalitatekoak dira, 10 B-koak (Espainian), 2 C-koak (atzerrian) eta 2 I-koak (atzerrian).

Halaber, 2016. urterako zegoen helburua 441 dirulaguntza ziren (100 beka berri eta 340 berriztapen ziren).

Berriztapenerako aurrekontua aurreikusitako zenbatekoetan gauzatu da; beka berrietarako kopuruak finkatutako helburuak bete ditu baina ez da beka mota horren eskaerari arreta emateko adinakoa.

Doktoretza lortzeko 51 sari eman dira laguntzaren aldiari doktoretza titulua lortzeagatik

b) Ikertzaile doktoreentzako laguntzak:

- Doktoretza ondoko beka.

Deialdiaren helburua EAEko ezarpen-zentroetan hobekuntza gauzatzeko ari diren eta denbora baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoreentzako laguntzak ematea da, 2016-2017 ikasturterako. Deialdian, beka berriak ematea jasota dago, bai eta 2015-2016 ikasturtean emandakoak berritzea ere.

2016-2017 ikasturtea. 2016ko maiatzaren 10eko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena (2016ko maiatzaren 17ko EHAA).

- Eskaera berrien kopurua: 92
- Beka berriak: 25
- Berriz ematen direnak: 47
- Bekak guztira: 72

Horrela, 72 beka eman dira. 2016. urterako zegoen helburua 75 beka ziren (23 berri eta 52 berriztapen).

c) Doktoretza-aurreko egonaldiak, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak.

Egonaldi horien helburua izango da prestatzen ari diren ikertzaileak zientzia- eta teknika-ikerketan hobeto prestatzea, eta horretarako laborategi edo ikerketa-zentroetan ikerketa-lanak egitea, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, bibliografia- eta ikerketa-fondoetan kontsultatzea eta beste edozein ikerketa jardura egitea esku artean duen tesi-proiektuaren testuinguruan, ikertzailearen zientzia- eta teknika-prestakuntza hobetzeko, tesiaren garapena bultzatzeko eta nazioarteko doktoradutza ateratzeko errazteko.

2016ko Deialdia (aurretik deitutakoa), 2015eko abenduaren 1eko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena (EHAA: 2015/12/07).

beneficiarios de la modalidad A (en la CAPV) y 1 de la modalidad I (en el extranjero).

De los 312 renovantes 298 son de la modalidad A (en la CAPV), 10 de la modalidad B (en España), 2 de la modalidad C (en el extranjero) y 2 de la modalidad I (en el extranjero).

El objetivo para el año 2016 era 441 becas (100 nuevas y 340 renovaciones).

El presupuesto para renovaciones se ha ejecutado en las cantidades previstas; la cantidad dedicada a nuevas becas ha cubierto los objetivos fijados pero resulta insuficiente para atender la demanda de este tipo de becas.

Asimismo, en 2016 se han otorgado 51 premios por la obtención del doctorado durante el periodo de la ayuda.

b) Ayudas de perfeccionamiento del personal investigador doctor:

- Ayudas Posdoctorales.

Las ayudas están destinadas al perfeccionamiento del personal investigador doctor en centros de aplicación en la CAPV y desplazamiento temporal en el extranjero correspondientes al curso 2016-2017. La convocatoria incluye tanto la concesión de nuevas ayudas como la renovación de las concedidas para el curso 2015-2016.

